

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2010eko OTSAILAREN 18an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2010eko otsailaren 18an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 18.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez

Karlos Irazu Muñoa

Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
 - 2009ko abenduaren 3an egindako ohiko bilkura.
 - 2010eko urtarrilaren 14ean egindako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2009 urteko kultur asteko gastuen kitapenaren berri ematea, hala bada.
4. Manuel Larramendi Kultur bazkuneari 2010 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.
5. Larraulgo Herria antolatzeko Plan Orokorra idazteko kontratazioaren behin betiko esleipena, hala bada.
6. 03/2009 Kreditu aldaketaren onespena, Kreditu gaikuntza modalitatean.
7. Fakturak eta ordainketak.
8. Beste batzuk.
9. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- ▣ 2009 urteko abenduaren 3ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2010 urteko urtarrilaren 14ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

02/2009 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 26koa, 2009ko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

03/2009 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 8koa, 2010 eko INEM-CCLL hitzarmenaren babesean peoi bat kontratatzeko diru-laguntza eskaera egitea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


HIRUGARREN PUNTUA

2009 URTEKO KULTUR ASTEKO GASTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2009ko azaroak 23tik 29ra eta abenduaren 6tik 7ra Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

GASTUAK:

Bertsolariak (Egaña-Gaztelumendi)	420,00
Kartelak	139,20
Egutegia	720,00
Txondorra	
-Egurra	431,00
-Toldoa	60,32
Mus Txapelketa	
-Arkumea	65,00
-Oilaskoa	26,10
Haur merienda, pilota eta eskulanak	
-Medailak	41,25
-Janaria	50,43



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Eskulanak	72,50
Talo jana	
-Urdaia-Gazta	171,40
-Artirina	30,00
-Gaztainak	108,50
-Elkarteak	197,23
GUZTIRA:	2.532,93€
SARRERAK:	
-Udalaren ekarpena	2.000,00
-Azoka	185,80
-Ikatzaeren salmenta	330,00
-Egutegien salmenta	45,00
GUZTIRA:	2.560,80€
BALANTZEA:	+27,87€

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2009ko aste kulturalako gastuen kitapena onestea.

LAUGARREN PUNTUA


MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2010 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Bertaratuek gaia mahai gainean uzteko erabakia hartzen dute, eta hurrengo Udalbatzarrean aztertu, gaia argitu ondoren.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO HERRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO KONTRATAZIOAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2009ko abenduaren 3an eginiko Udalbatzarrean M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E. Erkizia taldeari Larraulgo herria antolatzeko Plan Orokorra Idazteko kontratua behin-behingo esleitu zitzaioa 94.000,00.- euro diru kopuruagatik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik erabaki honen berri INJELAN, KUDEATUZ, J.Arrizabalaga, P.Assas eta J. Zubiria eta M. A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E. Erkizia taldeei eman zitzaiela.

Ikusirik J. Zubiria jaunak aurkezturiko birjarpen helegitea, non eskatzen dituen Lehiaketaren gainontzeko eskaintzaileek aurkeztutako eskaintzen agiri teknikoak (Memoria teknikoa; Programa eta Lan Metodologia; bide tekniko eta gizatarrak eta proposamen hobekuntzak), eta aurkezpenerako erabaki den epe berri baten izendapena, birjarpenezko errekurtsioa jarri ahal izateko.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E. Erkizia taldeari Larraulgo herria antolatzeko Plan Orokorra idazteko kontratua behin betikoz esleitzea, aurkeztu dituen baldintza administratiboetan eskatzen zen dokumentazioa. Lanaren zenbatekoa 94.000,00.-euro izango da, eta aipaturiko lana 34 asteetan egingo dute, erabaki honen jakinarazpena jasotzen duten hurrengo lanegunetik hasita.

BIGARRENA: M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E. Erkizia taldeari jakinaraztea erabaki honen berri jakinarazten zaionetik hamar lanegunetara Udaletxe honetara bertaratu beharko dutela dagokion kontratua sinatzera. Alkatea horretarako ahalmentzen delarik.


HIRUGARRENA: J.Zubiria jaunak tartekaturiko birjarpen helegitea balio gabe uztea, tartekaturiko erabakia behin behineko izateagatik.

LAUGARRENA: J.Zubiria jaunari jakinaraztea 30/2007ko Legea, urriaren 30ekoa, non Sektore Publikoako kontratuak arautzen diren, bere 137.2 artikulua araberako Lehiaketaren gainontzeko eskaintzaileek aurkeztutako eskaintzen agiri teknikoak ezin dituela ikusi eta ez kopiarik jaso, eskaintzaileen jabetza intelektualaren eskubideak urratzen direlako.

BOSTGARRENA: Erabaki honen berri INJELAN, KUDEATUZ, J.Arrizabalaga, P.Assas eta J. Zubiria, M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E. Erkizia taldeei ematea, eta Larraulgo Web orriko kontratatzailearen profilean jartzea.

SEIGARREN PUNTUA

03/2009 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA, KREDITU GAIKUNTZA MODALITATEAN



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kreditu gaikuntza erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu, 3/2009 zenbakiarekin identifikatua eta udal honen 2009ko aurrekontuaren barnean izapidetua.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena eta Hazienda, Kontu bereziak eta barne funtzionamenduko batzordeak onespren proposamena eginez emandako irizpena ere aztertu dugu.

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 31.5.artikuluaren ematen duen ahalmenez baliatuz, bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, 49.711,26 eurotako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea. Hori, udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

VEDISCOBA	219,44
IBERDROLA	26,69
IBERDROLA	24,93
IBERDROLA	172,50
IBERDROLA	135,89
IBERDROLA	-4,42
IBERDROLA	115,51
IBERDROLA	82,68
IBERDROLA	228,67
IBERDROLA	22,76
IBERDROLA	203,84
IBERDROLA	182,61
IBERDROLA	143,96
IBERDROLA	297,97
IBERDROLA	336,39
IBERDROLA	33,16



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


MANUEL LARRAMENDI	1.100,00
IZFE	97,44
IZFE	1.796,90
IZFE	522,00
LAYLE	479,88
UROLA	192,01
GARAJE EKIN	9,86
TELEFONICA	86,85
TELEFONICA	20,12
TELEFONICA	67,53
KIROLZER	98,40
PELLO ERROTA GURASO ELKARTEA	539,98
BELARMENDI	194,01
MEGA	77,26
ULAHÍ	778,39
ALKI-ANOETA	24,36
ZELAI	108,91
BARBE	80,46
MEGA	161,45
GARAJE EKIN	256,06
MEGA	275,20
DIONISIO ORMAZABAL	27,56
MANPEL	59,50
MAPFRE	551,67
EITD	3.562,17
UROLA	11,09
LIZARRA	67,47
LIZARRA	225,39
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	159,95
JOXAN ALTUNA	277,31
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	149,49
VASCOPLAST	149,06
MANPEL	39,99

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.470,30** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8.1. ERNIOZALE KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Erniozale Kultur Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten Zortzi Herrien arteko ibilaldia antolatu behar dutela datorren maiatzaren 9an. Ibilaldia aurten Bidegoianen hasi eta bukatuko da. Horretarako ibilbideak txukundu eta margotzea beharrezkoa egiten da.

Goian aipaturikoa gauzatu ahal izateko, Larraulgo Udalari 335,00.-eurotako diru-laguntza eskaera egiten diote Erniozale Kultur Elkarteak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari 335,00.-eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari jakinarazi, Larraulgo Udalean aurkeztu beharko duela izan dituen gastuen kitapena.

8.2.T.E eta P.O. JAUN/ANDREAK AUKEZTURIKO KEXAREN BERRI EMATEA

Ondoren T.E. eta P.O jaun/andreak aurkezturiko kexaren berri ematen da, ondorengoa diolarik:


“Larraulgo Udalak bidalitako azken oharretan, banda zabala eta telefonía Wifi teknologia jartzeko asmoa duela jakinaraziz, bai Udaletxean eta baita aukera hori zabalduz seinalea iristen den inguruetako edonori ere.

Hori jakinik, zera adierazi nahi diogu:

Kezka sortu zaigula horrelako erabakia hartu izanagatik eta horrek dakartzan ondorenengatik, izan ere bertan bizi izateak horren eraginak, bete-bete harrapatuko baikaitu, nahiz eta geronek teknologia horren erabilera nahi ez izan.

Kezka handia gainera, azken berrien emaitzak ikusita osasun mailan zer eragin duen. Frantzian esate baterako, eskola eta inguru askotatik kentzen ari dira.

Kezka, nahiz eta frogatu gabe egon askorentzat, susmoak eta zalantzak hor daudelako.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kezka, horrelako erabakia herritarren artean galdeketa egin ez izanagatik.

Besterik gabe, eta herritar garenetik, gure iritzia eduki dezazuen.

Larraulen, 2010eko urtarrilaren 26an”

Udalbatza honetara bertaratuek, T.E. eta P.O. jaun/andreak aurkezturiko kexaren jakin gainean gelditzen dira.

**HAMAIRUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 19.50 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA